

UDAL-BATZARRA 10/02

UDAL-BATZARRAK, 2002ko urriaren 21ean EGINDAKO OHIZ KANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel M^a Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Rafael Uribarren Axpe
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBETE XEBERRIA

ANOETako Udaletxean, 2002ko urriaren 21ean iluntzeko zortzirak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohiz kanpoko Bilkura egin asmoz Jose M^a Sarasola Goenaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Jose Martin Uzkudun Zinegotzia ez da etorri eta ez du arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria and.

1.- UDALBATZAK 2002KO UZTAILAREN 4EAN ETA IRAILAREN 26AN EGINDAKO BILKURETAKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzak 2002ko uztailaren 4ean eta irailaren 26an egindako bilkuretako aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 4 de julio y 26 de septiembre de 2002.

2.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA, 309 ZENBAKITIK 405 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

Alkateak egindako ebazpenen berri eman du, ebazpen horien zenbakiak 309 eta 405 bitartekoak izanik, biak barne.

3.- EUSKADIKO TOKI ETA FORU-ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEKO HITZARMEN POLITIKOA 2002KO ETA 2003KO EKITALDIETARAKO.

Ikusirik, Eudelek bidali duen Euskadiko Toki eta Foru Administrazioaren zerbitzura dauden Langileen Lan-Baldintzak arautzeko Hitzarmen Politikoa 2002ko eta 2003ko ekitaldietarako.	Visto el Acuerdo Político Regulador de las Condiciones de Empleo del Personal al Servicio de la Administración Local y Foral de Euskadi para los ejercicios 2002 y 2003, remitido por Eudel.
---	--

Alkateak partaideei adierazi di, administrazioa langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmen politikoa dela honakoa. Negoziaketan iskanbila asko egon direla badakiela, eta sindikatuekin ez dela akordio batera iritsi. Hemen aurkezten den akordioa Eudelek bidalitakoa dela, EAJ/PNV, PSE/EE/PSOE, EA eta PP talde politikoek lortutakoa.

Eztabaida luze baten ondoren, Alkatearen proposamenez, partaideek aho batez erabaki dute, puntua aztergai uztea eta Eudelek bidalitako erabaki politiko honi buruz langileen iritzia jasotzea.	Despues de un amplio debate y a propuesta del Sr. Alcalde, se acuerda dejar el punto sobre la mesa y recoger la opinión de los trabajadores ante el acuerdo político presentado por Eudel.
--	--

4.- “A-19 ITURTTULO EREMUAREN XEHETASUN AZTERKETA” PROIEKTUA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONESTEKO PROPOSAMENA.

“A-19 Iturttulo eremuaren Xehetasun Azterketa” hasierako izaeraz onartua izan zen alkatetzaren ebazpenaz 2002ko abuztuaren 26an.	Visto que por resolución de alcaldía de fecha 26 de agosto de 2002 se aprobó inicialmente el “Estudio de Detalle del Area A-19 Iturttulo”.
--	--

Espedientea argitaraturik egondako epean erreklamaziorik ez iradokizunik ez dela aurkeztu ikusirik, partideek aho batez erabaki dute:	Visto que sometido el expediente a trámite de información pública no se ha presentado reclamación ni alegación alguna, se acuerda por unanimidad de los reunidos:
---	---

<u>Lehenik</u> : “A-19 Iturttulo eremuaren Xehetasun Azterketa” behin-betiko izaeraz onestea.	<u>Primero</u> : Aprobar definitivamente el “Estudio de Detalle del Area A-19 Iturttulo”.
---	---

Bigarrenik: Espedientearen berri
Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

Segundo: Dar cuenta del expediente a la
Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

**5.- ANOETAKO ARAU SUBSIDIARIOAK A-11 ERROTA EREMUAN
ALDATZEKO AURRERAPENAREN SOLUZIO ETA IRIZPIDEAK ONESTEKO
PROPOSAMENA.**

Ikusirik Alkatetzak 2002ko
abuztuaren 9an emandako Dekretua,
zeinen bidez, “ANOETAKO
PLANEAMENDUKO ARAU
SUBSIDIARIOAK A-11 ERROTA
EREMUAN ALDATZEKO
AURRERAPENA”.

Visto que por Resolución de
Alcaldía de fecha 9-8-2002 se acordó
exponer al público el “AVANCE PARA
LA MODIFICACION DE LAS NORMAS
SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO
DE ANOETA REFERIDA AL AREA A-
11 ERROTA”.

Ikusirik, informazio publikoan ipini
denean iradokizun-idatzi bat aurkeztu dela,
Patrick Mariano SIFUENTES LIEBIG
jaunaren aldetik, WINKLER +
DUNENBIERen izenean eta Lehendakari
modura.

Visto que, sometido a información
pública, se ha presentado un escrito de
sugerencias suscrito por D. Patrick
Mariano SIFUENTES LIEBIG, como
Presidente y en representación de
WINKLER + DUNENBIER.

Ikusirik, Raimundo Mendiburu
Abad Udal Arkitektu Aholkulariak
egindako txostena.

Visto el informe emitido por el
Arquitecto Asesor Municipal D. Raimundo
Mendiburu Abad.

Alkate jaunak partaideei adierazi die, arauen aldaketa bat eskatu dutela A-11 Errota eremukoak, Diputazioak errepidean jarri zuela arazoa rotondarekin eta irtenbidea proposatu zuela. Puntu honetan, lehendabizi aurrerapen (avance) honen onarpena egin zela, eta ondoren espediente argitaratu. Orduan Winklerrek alegazio bat aurkeztu duela eta Raimundo Mendiburu arkitektuak txostena egin duela. Txostenak adierazten duenez, alegazio bat baino gehiago, sugerentzia dela; izan ere, aurrerapenak kriterioak eta helburuak planteatu behar dituela, eta ez dituela planoak eduki behar, hori proiektuan jaso beharreko informazioa dela. Sarrerari nolako soluzioa emango zaion jakin nahi duela Winklerrek. Txostenean proposatzen dela dokumentu hau onartu eta Winklerrek eskatzen duena proiektuan zehaztea exigitzea promotoreei.

Partaideek aho batez erabaki dute,
“ANOETAKO PLANEAMENDUKO
ARAU SUBSIDIARIOAK A-11 ERROTA

Se acuerda por unanimidad de los
reunidos, aprobar los criterios y soluciones
del “AVANCE PARA LA

EREMUAN ALDATZEKO AURRERAPENA”ren soluzio eta irizpideak onestea eta exijitzea, PROMOVISA 2000 S.L. enpresak bere tramitaziorako aurkezten duen dokumentazioan, errepide probintzialesetik A-11 eremurako sarbide berria zehaztu dezan, nahiz memorian nahiz planotan.	MODIFICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DE ANOETA REFERIDA AL AREA A-11 ERROTA” exigiendo que en la documentación a presentar para su tramitación, por PROMOVISA 2000 S.L. se especifique tanto en memoria como en planos, la nueva solución de acceso al ámbito A-11 desde la carretera provincial.
--	--

6.- ANOETAKO ARAU SUBSIDIARIOAK A-11 ERROTA EREMUAN ALDATZEKO PROIEKTUA HASIERAKO IZAERAZ ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak, puntu hau gairerendatikat kanpo utzi du.	El Sr. Alcalde retira el punto del orden del día.
---	---

7.- KUKU PILOTA ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Jeremías Perez jaunak, urtero egin ohi duen modura, Kuku Elkartearen izenean 2002-2003 ikasturterako antolatutako pilota ekitaldiak aurrera eramateko dirulaguntza-eskaera aurkeztu du. Eta eskaerarekin batera, 2001-2002 ikasturtean egindako gastu guztien fakturak erantsi ditu, eta memoria xehetu bat ere.	Vista la petición formulada por D. Jeremías Perez, en nombre de Kuku Elkartea, solicitando ayuda económica, como lo vienen haciendo todos los años, para llevar a cabo las actividades de pelota programadas por Kuku Elkartea para el periodo 2002-2003. Se adjuntan facturas de todos los gastos producidos durante el periodo 2001-2002, así como memoria detallada.
--	---

Ikusirik, 2002ko uztailaren 17ko Kultura Batzorde Informatzailearen proposamena.	Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Cultura de fecha 17 de julio de 2002.
--	--

Alkateak Kultura Batzordeko Presidenteari hitza eman dio.

Manu Odriozola, Kultura Batzordeko Presidenteak adierazi du, gai hau batzordean ikusi zutela eta aurkeztutako fakturak onetsizat ematen direla. Orain, datorren ikasturterako dirulaguntza eskatzen dutela, ohizkoa den bezala. Bestalde,

2001-2002 ikasturtean kozkortuei zuzendutako entrenamendu klase berezi batzuk eman direla eta ordainketa erdibana egitea adostu zutela. Ordainketa honek, Udalak 40.000 pezeta ordaintzea suposatzen duela.

Rafael Iribarren EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramaileak galdetu du, ea zer adineko ikasleei zuzendutako klaseak diren.

Odriozola Zinegotziak erantzun dio, 16 urte ingurukoak direla, udal pilota eskolatik kanpo geratzen diren pelotariei zuzenduak.

Hau honela, partaideek honakoa erabaki dute aho batez:

Lehenik: Aurkezturiko likidazioa onestea, 2001-2002 ikasturteari dagokiona.

Bigarrenik: 2.199,76 euroko dirulaguntza onestea, ekintza hauetarako:

* 2002-2003 ikasturterako pilota aktibitateak:..... 1.954,00 €

* 2001-2002 ikasturterako pilota monitorearen kontratazioa: 245,76 €

Hirugarrenik: Ordainketak Kuku Pilota Elkartearen alde egin dadin agintzea, jarraian adierazitako partidaren kontura: 1.0000.481.450.00.01.2002 "Kultur Erakundeak"

Ante éllo, se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero: Aprobar la liquidación presentada, correspondiente al curso 2001-2002.

Segundo: Conceder una subvención de 2.199,76 euros en concepto de:

* actividades de pelota, periodo 2002-2003: 1.954,00 €

* contratación de monitor de pelota, periodo 2001-2002: 245,76 €

Tercero: Ordenar el pago a favor de Kuku Pilota Elkartea, contabilizando el mismo con cargo a la siguiente partida: 1.0000.481.450.00.01.2002 "Kultur Erakundeak"

8.- EUSKARA PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEAK EGINIKO PROPOSAMENAK FUNTZIONAMENDU IRIZPIDEEN INGURUAN.

Mikel Errazkin Zinegotziak Euskara Planaren Jarraipen batzordeak 2002ko maiatzaren 8an eginiko bileran adostutako puntuak irakurri ditu, honakoak izanik:

"1. Enpresekiko harremanak:

Anoetako enpresa bakoitzari gutuna bidali zaio, udalarekiko harreman hizkuntza finkatzeko asmoz. Idazkaritza orokorreko langileek eta idazkariak enpresa bakoitzak

aukeratu duen hizkuntza-harremana azalduko duen zerrenda izango du eta zorrotz jarraituko dute irizpide hori idatzizko edozein komunikaziotan.

Lizentzia eskatzera datozen enpresa berriein honela jokatu da:

- Hizkuntza-harremana zehaztea eskatuko zaie (euskara hutsean ala elebitan) eta zerrendan gehituko dira.
- Errotulazioa, paisaje lingüistikoa, e.a., euskaraz izatea iradokiko zaie.

2. Hornitzaileekiko harremanak:

Enprekin egin den bezala, hornitzaileei ere, hizkuntza-harremana finkatzea eskatuz, gutuna bidaltzea adostu da. Erantzunak jasota, irizpide hori zorrotz jarraituko da udalak bidaliko dituen komunikazioei dagokienez.

3. Erakundeekiko harremanak:

Beste erakundetatik erdara hutsean iristen den dokumentazioarekin honako irizpideen arabera jokatu da:

- dokumentuei sarrera emango zaie.
- Zein erakunderi itzuliko zaion: EAEko Toki, Foru eta Jaurlearitzako administrazioei eta entitate horiei lotutako erakundeei; Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioei; Administrazio zentralako EAE eta NFEko delegazioei.
- Dokumentazioa itzultzeak interesatuari edo udalari kalterik sortuko badio desadostasuna adieraziko zaio igorleari, baina prozedurak aurrera jarraituko du.
- Kasu guztietan adostutako gutun eredia erabiliko da, ez besterik.

4. Errolda-ziurtagiriak eta bestelakoak:

Ziurtagiriak emateko bi aukera eskaintzea adostu da: euskara hutsean eta elebitan. Herritarrari euskara hutsezko ziurtagiria eskuratzeko aukera azaldu behar zaio, baita zein arazo izan dezakeen NAN bideratzerakoan ere eta udalaren babesia izango duela prestatuko zaion gutunarekin.

UEMAk ziurtagiri horiek IZFEren programan euskara hutsean eta guk nahi dugun eredia erabiliz prestatzea bermatuko du.

Leihatilaren inguruan “ziurtagiriak eta baimenak euskara hutsean eska ditzakezu” dioen kartela ipiniko da.

5. Dekretuak eta bandoak:

Udalaren barne dokumentazio guztia (diktaminak, dekretuak, e.a.) euskara hutsez bideratuko dira. Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, kanpora begira beharrezkoa ikusten den kasuetan, erdarazkoa letra txikiagoan eta ezkerreko zutabean ipiniko da, 3. eranskineko eredian bezala.

Jakinarazpenetan ere, errespetatu euskara hutsean egin behar direnak (herritarrak eskaera hala egin duelako edo bste pisuzko arrazoiak daudelako); bi hizkuntzak erabili

behar diren jakinarazpenetan, erdarazkoa letra txikiagoan eta ezkerreko zutabearen ipiniko da.

Bandoetan, orain arte bezala, gai garrantzitsuetan, erdarazkoa letra txikiagoan ipiniko da.

6. Udalaren publizitate ofiziala.

Euskal medioek lehentasuna izango dute: Egunero eta Egunkaria.

Anoetako Euskara Planaren Jarraipen batzordeak honakoa eskatu nahi dio Anoetako udalbatzari:

Goian aipatutako gaiak Jarraipen Batzordeak proposatu bezala onartzea eta udalaren sail guztietako langileei irizpideak jakinaraztea. Horretarako, besteak beste “Langilearen dekalogo” deritzon dokumentua erabiliko da.”

Alkateak adierazi du, irizpide hauek jadanik jarraitzen direla eta nolabait jasota utzi nahi direla. Jarraian hurrengo puntuarekin segitu du.

9.- OSASUN ZERBITZUAK EUSKALDUNTZEKO MOZIO-ESKAERA.

Mikel Errazkin Zinegotziak, jarraian adierazitako mozioa irakurri du:

“EAEko osasun zentroetan euskaldunak euskaraz atendituak izateko dauden arazoak ikusita, UEMAk hainbat eskaera plazaratu ditu Osakidetzako arduradunen aurrean azken urte hauetan. Arrazoi ezberdinak direla eta, osasun zerbitzuak euskalduntzeko Osakidetzak hainbat bider agindutako plana atzeratu egin da. **Atzerapen horrek gehien kaltetzen dituenak udalerrri euskaldunetako herritarrek gara.**

2001eko abenduan eta 2002ko urtarrilean, ELA, LAB, OEE eta UEMAk “Osasunak euskaraz baleki” kanpaina egin genuen. Kanpaina horren ondorioz, 16.000 herritarrek eskaera zuzena egin genuen Osakidetzak eta Osasunbideko arduradunen aurrean: hain zuzen ere, osasun zerbitzuak euskalduntzeko plana egiteko eskatu genuen herritarrek.

Plan barik jarraitzeaz gainera, Osakidetzak beste EPE bat (Enplegu Publikorako Eskaintza) abiarazi du ekainean eta, ondorioz, beste behingoz, **langile askok behin betiko lanpostua eskuratuko du euskara jakin barik... baita udalerrri eta eskualde euskaldunetan ere.** EPE horren aurrean oso kezkatuta gaude, euskaldunen eskubideak ez direlako kontuan hartu eta luzerako ondorio larriak ekarriko dituela ikusten dugulako. Hau da, udalerrri eta eskualde euskaldunetan sar daitezkeen langile erdaldun elebarrak urte askotarako baldintzatuko dute euskaldunek euskaraz bizitzeko eta euskaraz atendituak izateko dugun eskubidea.

Horren aurrean, UEMAk errekurritu egin du EPE hau; eta errekurritu, gauzak bideratzeko Osakidetzako arduradunekin ahalegin guztiak egin eta gero egin da; azken

saiakera boletinean argitaratu zen aurreko egunean. Errekurritu, Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako arduradunei hainbat bider gaia bideratzeko eskatu eta gero, ELA eta LAB sindikatuekin bildu eta gero... errekurritu da.

Orain ere, epaitegira jo aurretik, UEMAk jarritako gorako helegite hau aztertzeo aurrikusten diren hiru hilabeteotan ahalegin guztiak egingo ditu EPE honen akats larrienak berbideratzeko. Zentzu honetan, UEMAk partaidea den Anoetako Udalari ondorengo erabakia hartzea proposatzen zaio:

1.- EPE honi dagokionez, udalerrri eta eskualde euskaldunetan langile elebidunak baino ez izendatzeko eskatzea Osakidetzako arduradunei eta osasun arloko sindikatuei.

2.- Osasun zerbitzuak euskalduntzeko plana aurten onartzeko eskatzea Osakidetzako arduradunei eta osasun arloko sindikatuei.

3.- Erabaki honen berri Hizkuntza Politikarako Sailordetzako arduradunei ere ematea egindako bi eskaerak bideratzeko bitartekari lana egin dezaten.”

Rafael Uribarren, EAJ-PNV/EA koalizioko Zinegotziak adierazi du, bere taldearen asmoa abstenitzea dela izan ere, beraien ustez Osasun Saila euskara bultzatzeko ahalegin haundia egiten ari delako. Mozio honetan aipatzen direnak betetzeko beste motako arazoak izango dituela seguraski, baina ahalegina egiten ari direla. Aurrekontuak aztertzerakoan gai honi buruz Batasunarekin adostu zirela zenbait partida euskara bultzatzeko, langileei permisoak emateko... etabar, eta horregatik pentsatzen duela mozio honetan aipatutako arazoak beste mota batekoak izango direla.

Mikel Errazkin Zinegotziak erantzun dio, aspaldiko urtetan gai honekin behin eta berriz ibili direla egia dela baina orain arte asmo onetan bakarrik geratu direla. Kontraesan izugarrikoa iruditzen zaiola, batetik diru asko inbertitzea euskalduntze plan bat burutzeko eta aldi berean, orain atera duten enplegu publikorako eskeintzan euskara jakitea derrigorrezkoa ez izatea. Alegia, eskeintza honen bidez lanean administrazioan sartzen diren langileak euskaldundu egin beharko direla. Gerora ere, mozioan esaten den bezala, atzerapenak gehien kaltetzen dituenak udalerrri euskaldunetako herritarrak direla, besteak beste, Anoetan ere hori bizitu izan delako, mediku titularren ordezkari lanak egiten erdaldunak egotea. Beraz, kasu honetan ere udalerrri euskaldun bateko herritarrak izan direla kaltetuak.

Eztabaida luze baten ondoren, alkate jaunak mozioa botutara jarri du eta honako emaitza izan da lortutakoa:

Aldeko botu kopurua: BOST

Aurkako botu kopurua: BATERE

Abstentzioak: HIRU

Beraz, lortutako emaitzaren arabera, honakoa erabaki da:

Lehenengo.- EPE honi dagokionez, udalerrri eta eskualde euskaldunetan langile elebidunak baino ez izendatzeko eskatzea Osakidetzako arduradunei eta osasun arloko sindikatuei.

Bigarrengo.- Osasun zerbitzuak euskalduntzeko plana aurten onartzeko eskatzea Osakidetzako arduradunei eta osasun arloko sindikatuei.

Hirugarrengo.- Erabaki honen berri Hizkuntza Politikarako Sailordetzako arduradunei ere ematea egindako bi eskaerak bideratzeko bitartekari lana egin dezaten.

Eta beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat eman du alkateak, gaueko bederatzirak bost minutu gutxiago direnean. Guzti honetaz, ni idazkariak, fede ematen dudalarik.